

Albisteak

Zuzenbidearen Euskal Akademia sortu da

Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen ekimenez, Zuzenbidearen Euskal Akademia sortu zen 2003. urteko apirillean Bilbon, zientzia juridikoak aztertu, ikertu eta zabaltzeko xedearekin. Bereziki, Konstituziotik, Euskal Autonomia Estatututik, Eusko Legebiltzarrak onartutako legeetatik zein Batzar Nagusiek emandako foru arauetatik sor litezkeen auzi eta gaien inguruko azterketa eta debateak sustatzera dago bideratuta. Asmo hori betetzeko, Akademiak jardunaldi zein lan saioak antolatuko ditu, eta, dagokionean, gai horien inguruko lanak argitara emango ditu. Adrián Celaya, Javier Oleaga eta Ander Urrutia ditugu ekimen honen bultzatzaile nagusiak.

Euskal Herriko jabetza publiko eta pribatuari buruzko Symposium-a

Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutuak *Euskal Herriko lurraldeetako jabetza publikoa eta pribatua*-ri eskaini zion bere hirugarren *Symposium*-a. Abenduaren 11 eta 12an Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen Zuzenbide Fakultateko Gradu Aretoan garatutako jardunaldi hauek Euskal Herriko instituziorik bereizgarrienetarikoa diren jabetza komunal eta familiarra aztertzea zuten xede. Gai zabal hauek lantzeko, *Symposium*-ak hiru atal nagusi jorratu zituen: Jabetza publiko eta pribatuaren erregimena, Jabetzaren inguruko instituzioak, eta Jabetzaren bilakaera. Ponentziagileak, hainbat unibertsitatetik etorritako irakasleak izan ziren; hots, Nafarroako Unibertsitate Publikokoak, Bordeleko Montesquieu Unibertsitatekoak, Euskal Herriko Unibertsitatekoak, Kantabriako Unibertsitatekoak, Paueko Unibertsitatekoak, Deustuko Unibertsitatekoak eta Nafarroako Unibertsitatekoak.



José Manuel Castells, Joxe Joan González de Txabarri, Francisco Javier Ezquiaga eta Gregorio Monreal jaunak, III. *Symposium*-ari hasiera ematen.

Jardunaldi hauetan aurkeztu ziren ponentzia guztiak, bai eta saio bakoitzaren amaieran sortzen zen debateen transkribapen osoa ere, *Notitia Vasconiae* aldizkariaren 2. zenbakian bildu ditu Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutuak.

Euskal Foruen Zuzenbide Zibila aztergai Abokatuaren Bazkuneetan

Legelarien Euskal Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak, Euskal Foruen Zuzenbide Zibilar buruzko jardunaldiak antolatu zituzten Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Abokatuaren Bazkuneetan. Jaime Tapia Parreñok zuzenduriko Jardunaldi hauetan, euskara hutsean garatuak, honako alderdi hauek izan zituzten aztergai: *Iturburuak, aplikazio-arloa eta lege arteko gatazkak Euskal Zuzenbide Zibilean; Tronkalitatea eta Saka Forala; Euskal Ondorengotza Zuzenbidea eta Ezkontza Ekonomiaren Erregimena eta Ondasunen Foru Jakinarazpena*. Gai hauetakobakoitzaren inguruko azalpenak eman zituztenak, berri, izan ziren, hurrenez hurren, Jaime Tapia Parreño jauna, Arabako Auzitegi Probintzialeko magistratua; Lorenzo Goikoetxea jauna, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Zibileko irakaslea; Ander Urrutia jauna, notarioa eta Deustuko Unibertsitateko Euskal Zuzenbide Zibileko irakaslea; eta Gontzal Aizpurua jauna, Deustuko Unibertsitateko Euskal Zuzenbide Zibileko irakaslea.

Herri Erakundeen kudeaketari buruzko graduondokoa

Udako Euskal Unibertsitateak eta Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolak Hereku graduondokoa antolatu dute. Izan ere, unibertsitate ikasketetan ez da behar bezala lantzen herri erakundeen kudeaketa, eta, hutsune horretaz baliatuz, graduondoko ikastaroa antolatu dute elkarlanean. Hortaz, bereziki Herri zein Toki erakundeetan lanean diharduten profesionali edota alor horretan jakintza maila hobetu nahi duten guztiei dago zuzenduta.

Eskolak euskaraz izanen dira, Eibarko Markeskhoa jauretxean, eta 300 orduko iraupena izango dute. Guztira berrogei bat irakasle arituko dira klaseak ematen. Argibide gehiago nahi dituenak, dei beza 943 821 426 telefonora dei dezake, edota sar dadila honako orriotan: www.ehu.org zein www.se.ehu.es/seweb.

Justizia Sailetik zer berri?

Hainbat lege euskaratzeko hitzarmena Justizia Sailaren eta EHUren artean

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak hainbat lege testu euskaratzeko hitzarmena sinatu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Euskararen normalkuntzarako bidean beste aurrerapauso bat emanez, Zuzenbide Fakultateko irakasle batzuk eta EHUko Euskararen Institutuko hainbat kidek orotara hamabi lege euskaratuko dituzte 2004. urtean zehar; besteak beste, Langileen Estatutua, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoa eta Jabetza Horizontalaren Legea.

Rene Cassin saria, prostituten eskubideen alde diharduen Hetaira elkartearentzat

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Rene Cassin saria sortu zuen iazko urtean, giza eskubideen aldeko defentsan egindako lana sustatu eta goraipatzeko xedearrekin. Eta bere lehenengo edizioan, 2003. urtean alegia, prostituten eskubideen alde eta bazterketaren aurka diharduen Madrillgo Hetaira elkarteari ematea erabaki du.

Rene Cassin Baionan jaio zen 1887an, eta 1976an hil, 89 urterekin. UNESCO erakundearen sortzaileetako bat izan zen, eta baita Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeko zein eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiko presidentere ere. Halaber, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren bultzatzaile nagusia izan zen. Giza Eskubideen alde egindako lan eskerga aintzat hartuz, 1968an Bakearen Nobel saria jaso zuen.

Egiaztagiriak Internetez lortzeko aukera

Jaiotza, Ezkontza eta Heriotza Egiaztagiriak orain Internetez eskuratzeko aukera daukate herritarrek, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak sarean daukan guneari esker (www.justizia.net). Horretarako, aski da Erregistro Zibilaren atalean "Ziurtagiriak eskatu" atalean klikatu, eta bertan eskatzen diren datuak betetzea. Eskatzaileak posta arruntez jasoko du, dohainik, dagokion egiaztagiria.

Eusko Ikaskuntzako azken berriak



Gurutz Jáuregui jaso du 2003ko Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria

Giza, Kultura, Arte eta Gizarte Zientzien Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria Gurutz Jáuregui eman zaio bere bederatzigarren edizioan. Konstituzio Zuzenbidean katedradunak Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik jaso zuen saria, 2003ko urriaren 8an Donostiako Miramar Jauregian izandako ekitaldian. Bertan ziren, halaber, Juan M^a Otaegi, Euskadiko Kutxako presidentea eta Xabier Retegi, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak, eta Euskal Herriko sei unibertsitateetako ordezkariak ere hartu zuten parte sarituari beren eskerrona adierazteko:

Patricia Plaza (Nafarroako Unibertsitate Publikokoa), Gabriel Insausti (Nafarroako Unibertsitatea), Manuel Montero (Euskal Herriko Unibertsitatea), Rosa Miren Pagola (Deustuko Unibertsitatea), Inaxio Oliveri (Mondragon Unibertsitatea) eta Maité Lafourcade (Paueko Unibertsitatea).



Sari hau aurreko edizioetan jaso dutenak Julio Caro Baroja, Alvaro D'Ors Pérez-Peix, Luis Villasante, Jesús Altuna eta Juan Plazaola, Eduardo Chillida, Miguel Artola, Juan Garmendia Larrañaga eta Bernardo Atxaga ditugu.

Asmoz Fundazioaren ikastaroak

Eusko Ikaskuntzaren baitan sorturiko Asmoz Fundazioak hainbat master eta ikastaro eskaintzen ditu, eta horien guztien artean badira Zuzenbidearen munduarekin lotura daukaten batzuk. Graduatuondoko ikastaroak dagokienez, Ingurumen Zuzenbidean Masterra, Nazioarteko Merkataritza Zuzenbidean Masterra, Giza Eskubideetan Ikastaroa eta Europar Konstituzioari buruzko Goi Ikastaroa dauzkagu, besteak beste, *on-line* motakoak guztiak ere, ez presentzialak.

Eguneratze profesionalerako ikastaroen artean, berriz, Ingurumena eta Administrazioa, Nazioarteko Zuzenbidea eta Zuzenbide Konparatua, Segurtasun Legala Sarean, Ingeles Juridiko-Ekonomikoa, Zuzenbide Penala eta Zibila, Ingurumen Europar Zuzenbidea eta Hirigintza eta Lurralde Antolamendua eskaintzen ditu.

Aipatu ditugun master zein ikastaro guztiak 2004ko urrian dira hastekoak. Hauetako bakoitzari buruzko argibide gehiago jasotzeko, www.asmoz.org web orrira jo dezakezue.



Testuak eskuliburuaren 3. zenbakian, zerbitzu publikoen kudeaketa aztergai



Eskuartean duzun Eleria aldizkari juridikoak, aldiro, interes berezia daukaten gaiak ikuspegi didaktiko eta ulergarrian landutako azterlanak argitaratu ohi ditu Testuak izeneko eskuliburuan. Lehen eta bigarren zenbakietan, hurrenez hurren, Lan Zuzenbidearen iturriak eta Prozedura Zibileko Lege berria aztertu bagenituen, oraingo honetan Zerbitzu publikoen kontzeptua eta kudeaketa gaia aurkezten dizuegu. Silbia Sarasola Gorriti irakasleak prestatu du Administrazio Zuzenbidearen baitan funtsezkotzat jo dezakegun erakundeari buruzko edukia, bereziki Zuzenbide ikasketak egiten ari diren gazteei zuzenduta, klaseko eskuliburu gisa erabili ahal izan dezaten.

Sarasola irakasleak, hasteko, zerbitzu publikoak egungo eredu ekonomikoan kokatzen ditu; ondoren, zerbitzu publikoaren kontzeptua bera azaltzen du, bere osagaiak banan-banan aztertuz, eta bere gainera titularitate mota ezberdinak aurkeztu ostean, zerbitzu publiko lokalei arreta berezia eskaini eta atal oso bat eskaintzen die.

Testuak argitalpena eskuratu nahi duen orok –dela atera berri dugun hirugarren alea, dela aurreko bietako edozein–, Eusko Ikaskuntzaren bulego nagusietan bertan egin dezake eskaria, denda@euskoshop.com helbidean.


Bibliografia

Monografiak

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Iñaki. *Diversidad y convivencia lingüística: dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del euskera*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003; 422 or. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxek, Gipuzkoako Abokatuak Elkargoak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak Zuzenbidearen arloan bi urtetik behin eman ohi duen Joaquín Elósegui sariaren irabazle suertaturiko lana jasotzen du liburu honek.



LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki (zuz.). *Ingurugiroa eta Zuzenbidea*. Bilbo: Europar Ikerketen Taldea, Bizkaiko Foru Aldundia, 2003; 232 or. Lehen zenbakia kaleratu duen aldizkako argitalpen honen bitartez, ingurumenaren arloko araudiaren eta epaitegien jurisprudentziaren berri eman nahi da, eta ingurumenaren gaitan ikuspegi juridikotik garrantzia daukaten albisteak jorratu. Horrela, liburuak hiru atal nagusi ditu: ikerketei, araudiei eta jurisprudentziari dagozkienak, hurrenez hurren. *Europar Ikerketen Taldea*-ren jardueraren fruitua da argitalpen hau.



ALKORTA IDIAKEZ, Itziar. *Zuzenbide Zibileko ikasgaiak. Pertsona*. Argitalpen elektronikoa. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetza. ISBN: 84-8373-513-X. Liburu honek Persona Zuzenbidearen oinarriak modu ulergarri batean azaltzea du helburu; horregatik, oinarriko kontzeptuak lantzeko, teoriak gain ariketak ere proposatzen dira. Metodoaren aldetik, berriz, ikaslearen trebakuntza eta autoikaskuntza ditu ardatz. Material hau Europako kreditu sistema berriak dakarren ikaskuntza metodo berrira egokituta dago.

LANDA GOROSTIZA, Jon. *Zuzenbide Penaleko ikasgaiak. Zati orokorra eta zati berezia*. Argitalpen elektronikoa. Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Errektoreordetza. ISBN: 84-8373-514-X. Eskuliburu honek Zuzenbide Fakultatean eskaintzen den titulazioari dagozkion Zuzenbide Penala I (Zati Orokorra) eta Zuzenbide Penala II (Zati Berezia) ikasgaien oinarriko materialak biltzen ditu. Funtsean, arlo juridiko honen inguruan ezinbestekoak diren eduki eta eskemak jasotzen ditu. Ikuspegi praktikoari dagokionez, Zuzenbide Penaleko benetako kasuei nola egin behar zaien aurre azaltzen du, eta teknika juridiko-penala lantzeko kasu ugari eskaintzen ditu, norbanakoak horien gainean bere kabuz jardun dezan.




URRUTIA BADIOLA, Andres (zuz.). *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta Euskara: 1833-1877: euskarazko testuen bilduma eta azterketa*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003; 383 or. Bizkaiko Batzar Nagusiek berrogeita lau urtetan zehar euskararekin izan duten lotura jasotzen da liburu mardul honetan. Besteak beste, Bizkaiko Batzar Nagusietan hizkuntzak nola erabili diren, XIX. mendeko euskarazko testugintza, eta euskarazko testuen hizkuntza azterketa jasotzen ditu, eta baita testu elebidunen bilduma bat ere.




Artikuluak


GALLASTEGI, Cesar. "Cadizko Konstituzioaren aldeko sermoia euskaraz, hirurteoliberalaren garaian (1820-1823)", In: *Karmel*, 245. zkia., 2004; 39-59 orr. Artikulu honetan, euskarazko testu bitxi baten berri ematen zaigu; izan ere, apaiz batek ematen zaiduen, Martin de Galarragak-1820tik aurrera indarrean egon zen Konstituzio liberalaren alde euskaraz emandako sermoi politiko bat aurkezten baitzaigu.



JUARISTI, Patxi. "Kohesio soziala eta Oinarrizko Eskubideen Agiria Europako Batasunean", In: *Karmel*, 245. zkia., 2004; 90-98 orr. Europako Batasuna urte honetan bertan hogeita bost Estaturik osatuko dutenean, arazoak sortzen ari dira kohesio soziala ziurtatzeko. 2000ko azaroan Nizan onarturiko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Europako herritarrei eskubide zibil, ekonomiko, sozial eta politikoko aitortzeko lehen pauso bat da.



MORA AFÁN, Juan Carlos; ZAPIRAIN KARRIKA, David. "Docena bat guizonen artu naute: 1766ko matxinadari buruzko zenbait xehetasun eta euskaraz idatzitako txosten baten berri", In: *Notitia Vasconiae*, 2. zkia., 2003; 433-442 orr. Bi ikertzaile hauek 1766an Azkoitian eta Azpeitian izandako matxinadaren hastapenetan idatzirikoa testu bat aurkezten digute, Gipuzkoako Artxibategi Orokorrean aurkitu dutena. Ustez Azpeitiako alkateak idatzi zuen testu honek agerian uzten du orduko agintarien jardunean ohikoa zela euskara erabiltzea.




ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko. "Euskal Autonomia Erkidegoan inkomunikaziopean atxilotutakoei aplikatzeko protokoloa", In: *Revista Vasca de Administración Pública*, 66. zkia., Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2003; 279-301 orr. Artikulu honek, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak, Osasun Sailak eta Justizia Sailak, elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoan inkomunikaziopean atxilotutakoei aplikagarri izango zaizkien neurri eta bermeak bilzen dituen protokolo berria azaltzen digu.



PRIETO ETXANO, Eunate. "Informazioaren profesionalen kontzientziaklausula eskubidea egikaritzeko prozedura", In: *Revista Vasca de Administración Pública*, 65 (I) zkia., Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2003; 293-306 orr. Artikulu honetan, Konstituzio Auzitegiak informazioaren profesionalen kontzientzia klausula eskubidearen inguruan berriki emandako epai bat aintzat hartuz, eskubide horren egikaritzaren inguruko azterketa egiten da.




URRUTIA, Andres. "Nafarroako foru zibil berriak hogeitamar urte: testu euskaratuaren aurkezpena", In: *Karmel*, 244 zenb., 2003-4, 24-36 orr. Nafarroako Zuzenbide pribatu-ko foru legeak bildu ta eguneratzen dituen lege lestua, Foru Berria alegia, gaztelaniaz idatzita agertu da betidanik, eta orain, 30 urte betetzen dituenean, euskaratze lana egin dute Deustuko Unibertsitateko Eusko Ikaskuntzen Institutuko eta Zuzenbide Fakultateko irakasleek, Nafarroako Parlamentuko eta Gobernuoko zein HAEeko itzultzaileekin elkarlanean.



Itzulpenak

LANDA, Begoña; LOBERA, Gotzon; URRUTIA, Andres; URRUTIA, Esther; HAE EKO Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala, Nafarroako Parlamentuko itzultzaile eta Nafarroako Gobernuo Itzulpen Ataleko zenbait itzultzaile. *Foru-lege zibilak: Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea / Leyes civiles forales: Comunidad Autónoma Vasca. Comunidad Foral Navarra*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2002; 591 or. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko teknikari, eta Nafarroako Parlamentuko nahiz Gobernuo itzultzaile zenbaitek prestatutako argitalpen elebiduna. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, uztailaren 1eko 3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa, jaso da, azaroaren 16ko 3/1999 Legeak Gipuzkoako foru zibilaren inguruan egindako eraldaketarekin. Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, Foru Zuzenbide Zibilarren Konpilazioa edo Nafarroako Foru Berria jaso da, uztailaren 3ko 6/2000 Legeak, bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzkoak, egindako eraldaketarekin.



LANDA, Begoña; LOBERA, Gotzon; URRUTIA, Andres; URRUTIA, Esther; Nafarroako Parlamentuko itzultzaileak, Nafarroako Gobernuko itzultzaileak, IVAP/HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala. *Foru Berria edo Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa*, Iruñea: Nafarroako Parlamentua, 2003; 484 orr.




Eskuliburu honek Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa onesten duen 1/1973 Legea biltzen du, hain zuzen ere Nafarroako Foru Komunitatearen nortasunaren ezaugarri nagusietako bat dena, eta baita Foru Berriak geroztik izan dituen aldaketak ere.

LÓPEZ, A; MONTÉS, V.L. *Zuzenbide Zibila. Zati orokorra*. Egokitzaileak: Jabier Arrieta, Ana Otadui, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2002, 3. argitaraldia; 635 or.



Argitaraldi zuzendu eta eguneratu honek, Zuzenbide Zibila, Zuzenbidearen iturriak, Arauen interpretazio eta aplikazioa, Pertsonari buruzko Zuzenbidea, Eskubidea subjektiboa eta autonomia pribatua, Ondarea eta Pertsona juridikoak aztertzen ditu.

TOMÁS Y VALIENTE, Francisco. *Espainiako Zuzenbide-historiaren eskuliburua*. Itzultzailea: Aitziber Irigoras. Itzulpenaren koordinatzaileak: Anjel Lobera, Andres Urrutia. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2003, 4. argitaraldia; 714 or. Eskuliburu honetan, Hasierako Zuzenbidea eta erromatarren aurreko Zuzenbideak, Lehenengo erromatartze juridikoa, arauen sakabanaketa goi erdi aroko jaun gizartean, Zuzenbide erkidearen sistema arau emaileak eta Zuzenbidezko Estatu liberalaren arau sistemaren gaiak jorratzen dira.



DOMAT, Jean. *Legeen tratatua*. Itzultzailea: Andrés Urrutia. Donostia: Jakin, 2003; 127 or. Jean Domat (1625-1696) sona handiko legelaria izan zen, Frantziako Erregearen abokatua eta magistratua. Bere merezimenduen artean, mende bat geroago onartuko zen Kode Zibilar bidea irekiz Zuzenbide erromatarra birmoldatu, eguneratu eta frantseseratzea aipatu behar da. Domaten obra nausia *Les lois civiles dans leur ordre naturel* da, eta hain zuzen ere lan horren atarikoia da Andrés Urrutiak euskaratu duen zatia.



2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpen eguna
Nafarroako 2002ko Kontu Orokorrei buruzkoa	2003.09.10	---
<i>Prever</i> Programa zabaltzeari buruzkoa	2004.01.27	2004.02.09
Lurraldearen Antolaketari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko bosgarren Xedapen Gehigarria aldatzeari buruzkoa	 2004.03.15	---

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpen eguna
Herrialde behartsuei elkartasuna adierazteko Gutuna egiteari buruzkoa	2003.12.11	Herri Ekimenaren Batzordea	2003.12.30
Nafarroako Osasun Zerbitzua Zonifikatzen duen 22/1985 Foru Legea aldatzeari buruzkoa	2004.02.02	Nafarroako Parlamentuko Sozialistak	2004.02.16
Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen 16/1886 Foru Legeko 14. artikulua aldatzeari buruzkoa	2004.02.03	Nafarroako Ezker Batua	2004.02.16
Mugikortasunari buruzkoa	2004.02.10	Nafarroako Parlamentuko Sozialistak	2004.03.01
Osasun Saileko eta bere Organismo Autonomoetako B, C, D eta E mailetako estamentu sanitario eta ez-sanitarioetako langileen berariazko osagarriaren eta lanpostu mailako osagarriaren inkrementuak ezartzen dituen	2004.02.20	Nafarroako Parlamentuko Sozialistak	2004.03.08
Minbiziari aurre egiteko ekintza integralari buruzkoa	2004.02.23	Nafarroako Parlamentuko Sozialistak	2004.03.08
Hautzaroa sustatu, zaindu eta babesteari buruzkoa	2004.02.24	Nafarroako Parlamentuko Sozialistak	---
Ikuskizun Publikoei eta Olgetarako Jardueri buruzko 2/1989 Foru Legeko 2 eta 12. artikulua aldatzeari buruzkoa	2004.02.25	Nafarroako Ezker Batua	2004.03.08

Tesien txokoa*

Administrazio Zuzenbidea

BENHAMOUR-SOBOHAN, Karine: *Le traitement des pratiques anti-concurrentielles par les autorités internes charge de la concurrence: le cas des contrats publics.* **U:** Paueko Unibertsitatea. **Ur:** 2003.

BURLADA ECHEVESTE, José Luis: *Las garantías jurisdiccionales frente a la vía de hecho de la Administración.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Edorta Cobrerros Mendazona.

DOUENCE, Sophie-Maylis: *Le pouvoir d'organisation du service public.* **U:** Paueko Unibertsitatea. **Ur:** 2003.

Eliza Zuzenbidea

ARAUJO, Elisa María Rodríguez de: *O Direito a casar e fundar família consagrado no artigo 12 da Convenção Europeia dos Direitos Humanos.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Pedro Juan Viladrich Bataller.

CASTILLO ALBARRÁN, Beatriz: *El proceso de revisión del Concordato de 1953 y la protección de la libertad religiosa en España.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2002. **Z:** José M^a Blanco Fernández.

TARODO SORIA, Salvador: *Libertad de conciencia y derechos del usuario de los servicios sanitarios.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Adoración Castro Jover.

Enpresa Zuzenbidea

ZURIMENDI ISLA, Aitor: *Los fundamentos civiles del Derecho cambiario.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** José M^a Eizaguirre Bermejo.

Finantza eta Zerga Zuzenbidea

CAÑO ALONSO, Julio César: *Tributación de las instituciones de inversión colectiva y de sus accionistas o partícipes.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Eugenio A. Simón Acosta.

Lan Zuzenbidea

ARETA MARTÍNEZ, María: *La presunción normativa en el sistema de Seguridad Social.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Antonio Vicente Sempere Navarro.

FOTINOPOULOS BASURKO, Olga: *El contrato de trabajo de la gente de mar. Un análisis de la normativa aplicable.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2004. **Z:** Juan Pablo Landa Zapirain.

Merkataritza Zuzenbidea

LÓPEZ-JACOISTE DÍAZ, María Eugenia: *La legalidad de las decisiones del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas y el problema de su control.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2002. **Z:** José Antonio Pastor Ridruejo.

Nazioarteko Zuzenbidea

ÁLVAREZ MOLINERO, Natalia: *La construcción del derecho de autodeterminación en el Derecho Internacional y los pueblos indígenas: una perspectiva crítica.* **U:** Deustuko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Jaime Oraá Oraá eta Xabier Etxeberria Mauleón.

Zuzenbidearen Filosofia

AULESTIARTE JIMÉNEZ, Susana: *Persona, Biotecnología y Derecho: estudio sociológico-jurídico de la clonación humana con fines experimentales.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Ángela Aparisi Miralles.

MARTÍNEZ DE BRINGAS, Asier: *Los derechos humanos desde las víctimas en el contexto de la globalización. Un estudio a partir de la obra de Enrique Dussel.* **U:** Deustuko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Xabier Etxeberria Mauleón.

ZAMBRANO, María del Pilar: *La disponibilidad de la propia vida en el liberalismo político. Análisis crítico a partir del pensamiento de John Rawls y Ronald Dworkin.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Pedro Serna Bermúdez.

Zuzenbide Publikoa

BERNALES SORIANO, Roberto: *El principio de legalidad en la jurisprudencia tributaria.* **U:** Euskal Herriko Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Ernesto Lejeune Valcárcel.

FERREIRA MONTE, Mario Joao: *¿Legitimación del Derecho penal tributario? En particular, el ejemplo del delito de facturas falsas desde el Derecho Portugués.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2003. **Z:** Jesús M^a Silva Sánchez.

OSSANDÓN WIDON, María Magdalena: *La formulación de los tipos penales. Valoración crítica de los instrumentos de técnica legislativa.* **U:** Nafarroako Unibertsitatea. **Ur:** 2002. **Z:** Jesús M^a Silva Sánchez.

* Euskal Herriko unibertsitateetan 2003. urteko bigarren seihilabetean defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda; hau da, Euskal Herriko Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitatean, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Deustuko Unibertsitatean eta Paueko Unibertsitatean.

Laburdurak:

U: Unibertsitatea
Ur: Urtea
Z: Zuzendaria

PIÑA ROCHEFORT, Juan Ignacio: *Rol social y sistema de imputación. Consideraciones acerca de la incorporación de estructuras sociales en la operación del sistema jurídico-penal.* U: Nafarroako Unibertsitatea. Ur: 2002. Z: Jesús M^a Silva Sánchez.

VILELA CARBAJAL, Karla Patricia Maribel: *Nulidad y sentencia firme.* U: Nafarroako Unibertsitatea. Ur: 2002. Z: Faustino Cordón Moreno.

Zuzenbide Zibila

FEDERICI GOMES, Magno: *El proceso ejecutivo civil brasileño: comparación con el español.* U: Deustuko Unibertsitatea. Ur: 2003. Z: Ricardo de Angel eta César Augusto de Castro.

